



Save the Children

FAMILIAK ARRISKUAN

EUSKADI ERANSKINA

**Seme-alabak dituzten etxeetako pobrezia-egoeraren
azterketa euskadin**

2020ko urtarrila

savethechildren.es

Argitalpen hau María Sánchez Vidalek eta Pablo Tucatek –KSNET, Knowledge Sharing Network S.L.– garatutako datu-ustiapenean oinarrituta egin da.

Esker onez:

Carmela del Moral, Paloma García, Alicia Ibarra eta Óscar Naranjori, zuen denbora, talentua, pazientzia eta ideiak eskaintzeagatik.

KSNETeko María Sánchez Vidali eta Pablo Tucati, egindako bilera entretenigarriengatik eta proiektu honetan izan duzuen inplikazio handiagatik.

Save the Childreneko kide guztiei, egiten ditugun gauza guztietan gu guztion ekarpentxoak uzten dugulako. Txosten honetan baita ere.

Haurtzaroari eta Sentiberatzeari buruzko Politiken zuzendaria:

Catalina Perazzo Aragonese

Koordinatzailea:

Carmela del Moral Blasco

Egilea:

Gabriela Jorquera Rojas

Ilustrazioak:

Germán Gullón (Valbhy Design)

Arteak eta maketazioa:

Elena del Real Moreno

Argitaratzailea

Save the Children Espainia
2020ko urtarrila



AURKEZPENA

Pobrezia ez da berdin banatzen gizartean, pobrezia pairatzeko aukera areagotzen duten inguruabarrak edo egoerak baitaude; seme-alabak izatea da horietako bat. Helduak soilik bizi diren etxeetan, haurrik gabe, askoz ere probabilitate txikiagoa dute pobrezia pairatzeko. Aitzitik, haurren ardua heldu bakar batek duen kasuetan, eta heldua emakumea bada, bereziki, pobrezia pairatzeko probabilitatea askoz ere handiagoa da. Haurrak izateaz gain, pobrezia-rekin lotura estuagoa duten beste egoera batzuk ere badaude, hala nola hezkuntza-maila baxua izatea, langabezian egotea edo atzerritarrak izatea. Faktore horiek hainbat modutan agertzen dira familietan.

Save the Children jakin nahi izan dugu nola konbinatzen diren faktore horiek seme-alabak hazten ari diren etxeetan, nolakoak diren familia horiek, non eta nola bizi diren, pobrezia-arriskuaren faktoreak nola eragiten dieten, edo zein faktorek babesten dituzten. Euskadin, haurren pobrezia-maila altuak murrizteko programa eta politika egokiak diseinatu nahi baldin baditugu, **uste dugu beharrezkoa dela ezagutzea zer familia mota dauden egoera horretan eta politika horiek familia horien ezaugarri zehatzen arabera egokitzea.**

Horretarako, **pobrezia-egoeran dauden familietako profil estatistiko bat egin dugu,**¹ familia horien ezaugarri diren aldagaietan oinarrituta. Analisiak Euskadin haurrak dituzten familien talde homogeneoak identifikatzen ditu, bakoitzaren ezaugarri nagusiak aztertzeko gero. Horrela, hainbat taldetan sailkatu ditugu ardurapean seme-alabak dituzten biztanleak, eta haien pobrezia-tasak aztertu dira, bai eta ezaugarri soziodemografiko nagusiak ere. Emaitza familien bost profiletan aurkeztu dugu, arrisku-maila kontuan hartuta.


Profil bakoitza garrantzitsutzat jo diren aldagaien arabera deskribatu da. Oinarritzko ezaugarri demografikoez gain (etxeko arduradunaren sexua, adina, etab.), maila sozioekonomikoarekin lotutako alderdiak ere txertatu dira (hezkuntza-maila, lan-egoera, etab.), bai eta pobrezia-aren eta gizarte-bazterketaren definizioarekin berarekin lotutako aldagaiak ere (pobrezia-tasa, gabezia material larria, etab.).

1 Ikusi metodologia 2. eranskinean.

EMAITZAK

Haurrak ardurapean dituzten Euskadiko familien bost profil adierazgarrienak identifikatu eta ezaugarritu dira, interesgarriak diren aldagai guztiak aldi berean kontuan hartuta.

Txikitatik handirako hurrenkeran aurkeztu dira, hau da, familia gutxien dituen profiletik hasita familia gehien biltzen dituenera.



Ondoren, profil horien deskribapen zehatzak aurkeztuko ditugu.² Biztanleriaren oinarritzko ezaugarri sozioekonomikoez gain (sexua, adina, etab.), pobrezia-egoeran egoteko probabilitateari gehien eragiten dioten alderdiak ere jasotzen dira (hezkuntza-maila, lan-jar-

duerarekiko harremana, etxearen osaera, etab.), bai eta pobrezia-aren definizioarekin berarekin lotutako aldagaiak ere (gabezia materialak, pobrezia larria, errenta,³ etab).

2 Estatistikako Institutu Nazionalak egindako azken bi Bizi Baldintzen Inkesten (2017 eta 2018) datu-baseak elkarrekin aztertuz lortu dira profil horiek. Familien profilak ez dira asko aldatzen, eta, azterketa honen ondorioetarako, bi urte erabilteak laginaren neurria handitzeko aukera eman digu, emaitzetan distorsiorik sortu gabe. Guztira, 222.043 familia aztertu dira, seme-alabak dituzten familien batez bestekoa (2017 eta 2018).

3 Txosten honen ondorioetarako, familien errentaz hitz egiten den bakoitzean, kontsumo-unitateko errentaren erdiko balioari egiten zaio erreferentzia; hau da, bakarrik bizi den pertsona bati dagokionari: balio horri 1eko pisua esleitzen zaio, gainerako helduei 0,5eko pisua, eta 14 urtetik beherakoei 0,3ko pisua. Bi pertsona helduz osatutako familia bat 1,5 kontsumo-unitate litzateke, eta bi helduz eta bi haurrez osatutako familia bat 2,1 kontsumo-unitate.

Profil bakoitzaren balioak Euskadin ardurapean seme-alabak dituzten familien batez bestekoarekin konparatu dira, horiek irudikatzen baitute familien multzoaren balioak.⁴ Profil bakoitzaren bukaeran, laburpen-taula batean jaso dira balio horiek guztiak, eta dokumentuaren bukaeran ere beste laburpen-taula bat agertzen da, seme-alabak ardurapean dituzten familia guztien batezbestekoarekin eta profil bakoitzaren batezbestekoarekin.

1. eta 3. profilek dute pobrezia eta gizarte-bazterketa jasateko arrisku handiena, eta horietara zuzendu beharko litzateke familia babesteko politiken lehentasuna.



4 Azterketan erabilitako aldagai guztiak, kategorikoak nahiz jarraituak, estandarizatu egin dira.

1. profila Hiru belaunaldi pobrezian



Emakumeak

Familiaren ardura duten pertsona guztiak emakumeak dira.

% 86,2
lanik gabe daude

Etxeko ardura duten emakumeen % 45,6 erretiroa hartuta dute, eta % 40,6k ez du lanik egiten.

71,6 urte

Familiaren ardura duten emakumeen batez besteko adina 71,6 urtekoa da.

Pobrezia

Pobrezia-tasa moderatua % 20,1ekoa da.

Ezin diete ustekabeko gastuei aurre egin

Familien % 37k ezin ditu ustekabeko gastuak ordaindu, hala nola hozkailu berri bat edo betaurreko berri batzuk.

Hotza neguan

Familien % 17k ezin du neguko hilabeteetan etxebizitza tenperatura egokian mantendu.

Atzerapenak fakturen ordainketan

Familien % 9,8k atzerapenez ordaintzen ditu etxeko fakturak.

1. profilaren deskribapena

Pobrezia-arrisku handiena duen bigarren profila da hau.

Profil honek 13.495 familia biltzen ditu. Familia handiak ditugu hemen, bost pertsona ingurukoak batez beste, Euskadin haurrak ardurapean dituzten etxeetako batezbestekoa baino pertsona bat gehiagokoak. Kasu honetan, familiaren osaera ohikoena haurrekin bizi diren hiru heldu edo gehiagorena da (% 77,9). Familiaren ardura duten pertsona guztiak emakumeak dira. % 45,6 erretirodunak dira (emakumeak guztiak), eta % 40,6 egoera inaktiboan daude –zainketa-lanetan aritzen dira, langabezian daude baina ez dira lan bila aktiboki ari, lanerako ezintasunen bat dute, etab.–. Beharbada, familia horietan aitona-amonak, aitak edota amak ere biziko dira hurrez gain, eta hirietan bizi dira nagusiki (% 74,3).

Aurrekoa, familiaren neurria eta arduradunaren batez besteko adin handia (71,6 urte) gehituta, familia horietako hezkuntza-profilak belaunaldietan izandako eraginean islatzen da: % 39k Lehen Hezkuntzako edo behe-eragoko ikasketak ditu gehienez, eta % 25ek Bigarren Hezkuntzako lehenengo etapako ikasketak; beraz, ikasketa-maila txikia dute.

Profil hiritarra da nagusiki, % 74,3 hirietan bizi baita. Hileko batez besteko errenta haurrak ardurapean dituzten Euskadiko familien batez besteko errenta baino 508 euro txikiagoa da, eta horrek adierazten du pobrezia-tasa moderatua batez besteko tasa baino pixka bat handiagoa dela (% 20,1). Hala ere, pobrezia-tasa larria Euskadin haurrak dituzten familietako batez besteko tasa baino hiru aldiz txikiagoa da. Hauek dira eragiten dieten gabezia material nagusiak: aste-beteko oporraldia hartu ezin izatea (% 38,5), ustekabeko gastuei aurre egin ezin izatea (% 37), neguko hilabeteetan etxebizitza tenperatura egokian mantendu ezin izatea (% 17) eta etxebizitzaren fakturak (elektrizitatea, argia edo gasa, adibidez) atzerapenarekin ordaintzea (% 9,8).

Aldagaiak

1. profila

Euskadiko
familien batez-
bestekoak

Familiaren ezaugarriak

Etxeko arduraduna emakumea	% 100	% 36,5
Arduradunaren adina	71,6	47,7
Kide kopurua	4,7	3,7
Haur kopurua	1,7	1,6

Etxebizitzaren jabetza-erregimena

Jabetzako etxebizitza	% 76,0	% 81,2
-----------------------	---------------	--------

Arduradunaren herritartasuna

Herritartasun espainiarra	% 70,9	% 92,7
EBko herrialde bateko herritartasuna	-	-
Munduko beste herrialde bateko herritartasuna	% 29,1	% 7,3

Ikasketa-maila

Lehen Hezkuntza edo beheragokoa	% 39,3	% 5,7
Bigarren Hezkuntza (1. etapa)	% 25,0	% 17,6
Bigarren Hezkuntza (2. etapa)	% 21,4	% 20,0
Goi-mailako ikasketak	% 14,3	% 56,8

Arduradunaren lan-egoera

Lanaldi osoz lanean	% 3,4	% 73,3
Lanaldi partzialean	% 6,9	% 9,7
Langabetua	% 3,5	% 4,6
Ez-aktiboa	% 40,6	% 7,6
Erretiroduna	% 45,6	% 4,8

Familia mota

Gurasobakarra	-	% 10,4
Bi heldu eta haur bat	% 6,1	% 31,7
Bi heldu eta bi haur	% 3,5	% 38,5
Bi heldu eta hiru haur edo gehiago	% 12,5	% 7,2
Hiru heldu edo gehiago hurrekin	% 77,9	% 12,1

Urbanizazio-maila

Inguru oso populatua	% 74,3	% 55,7
Inguru ertaina	% 17,7	% 36,9
Inguru gutxi populatua	% 8,0	% 7,4
Pobrezia-tasa	% 20,1	% 17,9
Pobrezia-tasa larria	% 2,3	% 7,6
Oporraldirik hartu ezin dutenen %	% 38,5	% 21,2
Proteina kopuru egokirik kontsumitzen ez dutenen %	-	% 1,6
Etxebizitza tenperatura egokian mantendu ezin dutenen %	% 17,0	% 4,5
Ustekabeko gastu bati aurre egin ezin diotenen %	% 37,0	% 24,2
Argindarra, ura, gasa, etab. atzerapenarekin ordaintzen dutenen %	% 9,8	% 4,6
Errentaren erdiko balioa kontsumo-unitateko	1.120 €	1.627,5 €
Familia kopurua	13.495	

2. profila **Kualifikazio handikoak landa-inguruetan**



Bi heldu eta bi haur

Familia mota ohikoena bi heldu eta bi haurrena da (% 73,4).

Lanaldi partziala

Etxeko bost arduradunetik batek lanaldi partzialean lan egiten du.

Emakumeak

Familiako arduradun guztiak emakumeak dira.

Ikasketa-maila altua

% 89,9k goi-mailako ikasketak ditu.

Herritartasun espainiarra

Familien % 91,3 jatorri espainiarrekoak dira, eta % 8,7 Europatik kanpoko atzerritarrak dira.

Landa-ingurua

% 45,1 populazio er-taineko inguruetan bizi da, eta % 14,1 landa-inguruetan.

Batez besteko errentak

Errenta-maila diru-sarreren batezbestekoaren barnean dago, eta pobrezia-tasa batezbestekoaren azpitik.

2. profilaren deskribapena

Profil honetan, familia handiak biltzen dira, eta emakumeak dituzte buru: etxe haue-tako arduradunen % 100 emakumeak dira. Pobrezia-arrisku ertaina dute. Osaera ohi-koena bi heldu eta bi haur dituen familia da (% 73,4), eta bi heldu eta bi haur edo gehiago dituzten familia (% 16,6). Familia horietako gehienak jatorri espainiarrekoak badira ere, Europakoak ez diren atzerritarren ehuneko batez bestekoa baino handiagoa da hemen (% 8,7), eta horrek azal lezake proportzio handiagoan bizitzea alokairuko etxebizitzetan (% 63,7k soilik du etxebizitza jabetzan, Euskadin seme-alabak dituzten familien batezbestekoa baino 17 puntu beherago).

Ikasketa-maila altua da: % 89,9k goi-mailako ikasketak ditu ikasketen gehieneko maila gisa, haurrak ardurapean dituzten familien batezbestekoa baino 16 puntu gorago. Hezkuntza-maila altu horrek okupazio-maila altua ekartzea espero badaiteke ere, % 62,6k soilik lan egiten du lanaldi osoan, batezbestekoa baino 10 puntu beherago. Profil honen barnean, lanaldi partzialeko langileen ehuneko handi bat txertatzen da: % 20,1, batezbestekoa baino bi aldiz gehiago. Lanik gabe dauden pertsonen ehuneko ere nabarmentzen da, % 14,5ekoa baita (zainketa-lanetan aritzen dira, langabezian daude baina ez dira lan bila aktiboki ari, lanerako ezintasunen bat dute, etab.).

Familia horietako gehienak landa-inguruetan edo hiri-inguruetan bizi dira. % 45,1 populazio ertaineko eremuetan bizi da –50 mila biztanletik gora, kilometro koadroko 100 biztanletik gorako dentsitatearekin–, batezbestekoa baino 8 puntu gorago; eta % 14,1 landa-eremuetan bizi da, eskualdean seme-alabak dituzten familien batezbestekoaren bikoitza. Bestalde, % 40,8 hirietan bizi da, eta Euskadiko batezbestekoaren azpitik dago kopuru hori.

Familia hauen hileko batez besteko errenta Euskadin seme-alabak ardurapean dituzten familien artean altuena da, diru-sarrereren batez bestekoa baino 105 euro handiagoa; bestalde, familia hauen pobrezia-tasak dezente baxuagoak dira, gabezia material handirik gabe. Profil hau 23.551 familiak osatzen dute.

Aldagaiak

2. profila

Euskadiko
familien batez-
bestekoak

Familiaren ezaugarriak

Etxeko arduraduna emakumea	% 100	% 36,5
Arduradunaren adina	45,5	47,7
Kide kopurua	4,2	3,7
Haur kopurua	1,9	1,6

Etxebizitzaren jabetza-erregimena

Jabetzako etxebizitza	% 63,7	% 81,2
-----------------------	---------------	--------

Arduradunaren herritartasuna

Herritartasun espainiarra	% 91,3	% 92,7
EBko herrialde bateko herritartasuna	-	-
Munduko beste herrialde bateko herritartasuna	% 8,7	% 7,3

Ikasketa-maila

Lehen Hezkuntza edo beheragokoa	-	% 5,7
Bigarren Hezkuntza (1. etapa)	% 1,8	% 17,6
Bigarren Hezkuntza (2. etapa)	% 8,2	% 20,0
Goi-mailako ikasketak	% 89,9	% 56,8

Arduradunaren lan-egoera

Lanaldi osoz lanean	% 62,6	% 73,3
Lanaldi partzialean	% 20,1	% 9,7
Langabetua	% 2,8	% 4,6
Ez-aktiboa	% 14,5	% 7,6
Erretiroduna	-	% 4,8

Familia mota

Gurasobakarra	-	% 10,4
Bi heldu eta haur bat	-	% 31,7
Bi heldu eta bi haur	% 73,4	% 38,5
Bi heldu eta hiru haur edo gehiago	% 16,6	% 7,2
Hiru heldu edo gehiago hurrekin	% 10,0	% 12,1

Urbanizazio-maila

Inguru oso populatua	% 40,8	% 55,7
Inguru ertaina	% 45,1	% 36,9
Inguru gutxi populatua	% 14,1	% 7,4
Pobrezia-tasa	% 10,1	% 17,9
Pobrezia-tasa larria	% 4,8	% 7,6
Oporraldirik hartu ezin dutenen %	% 9,7	% 21,2
Proteina kopuru egokirik kontsumitzen ez dutenen %	-	% 1,6
Etxebizitza tenperatura egokian mantendu ezin dutenen %	% 4,0	% 4,5
Ustekabeko gastu bati aurre egin ezin diotenen %	% 6,0	% 24,2
Argindarra, ura, gasa, etab. atzerapenarekin ordaintzen dutenen %	-	% 4,6
Errentaren erdiko balioa kontsumo-unitateko	1.732,5 €	1.627,5 €
Familia kopurua	23.551	

3. profila **Familia txikiak eta ama bakarrak**



% 100 emakumeak

Familiako arduradun guztiak emakumeak dira.

2,8 kide

Euskadiko familien batezbestekoa baino kide bat gutxiago.

Ama bakarrak

% 38 guraso bakarreko familiak dira.

Lanaldi osoz lanean

Etxeko arduradunen % 63,9k lanaldi osoz lanean du, eta % 17k lanaldi partziala du.

% 26 pobrezian

% 26 pobrezia-egoera moderatuan dago, eta % 13k pobrezia larria jasaten du.

Ezin die ustekabeko gastuei aurre egin

Familiaren % 42k ezin ditu ustekabeko gastuak ordaindu, hala nola hozkailu berri bat edo betaurreko berri batzuk.

10 familietatik batek hotza pasatzen du neguan

Familiaren % 10,3k ezin du neguko hila-beteetan etxebizitza tenperatura egokian mantendu.

Atzerapenak fakturen ordainketan

Familiaren % 9k atzerapenez ordaintzen ditu gasaren, uraren eta argindarraren fakturak.

3. profilaren deskribapena

Profil honek du pobrezia-arrisku handiena Euskadin.

Talde honetan, familia txikiak daude, hiru kide baino gutxiagokoak batez beste, bi heldu eta haur bat gehienetan (% 62), eta guraso bakarreko familien ehunekoa batezbestekoa baino handiagoa da (% 38). Etxe hauetako arduradunen % 100 emakumeak dira. Populazio handiko inguruetan (% 58,3), eta populazio ertainekoetan (% 35,4) bizi dira nagusiki. Gehienetan, familiaren ardura duten pertsonak jatorri espainiarrekoak dira (% 97), baina jatorri europarreko atzerritarrek ere badaude, batezbestekoaren gainetik (% 2,2).

Familia hauek ikasketa-maila ertaina dute: % 27,2k Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa egin du (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila, Batxilergoa edo antzekoak), eta batezbestekoa baino 7 puntu gorago dago hori; % 20,8k lehenengo etapa (DBHko 3. mailara arte), eta % 52k goi-mailako ikasketak ditu.

Lan-merkatuarekin duten erlazioari dagokionez, profil honen barnean, familiaren ardura dutenen ehuneko handi batek lanaldi partzialean lan egiten du (% 17), eta % 12,4 lanik gabe dago (zainketa-lanetan aritzen dira, langabezian daude baina ez dira lan bila aktiboki ari, lanerako ezintasunen bat dute, etab.). % 63,9 soilik ari da lanaldi osoan lanean, Euskadin haurrak dituzten familien batezbestekoa baino 10 puntu beherago.

Errentari dagokionez, haurrak ardurapean dituzten familia bako bako txikiagoa da, eta horrek adierazten du pobrezia-tasa (% 26) eta pobrezia larria (% 13) lurraldeko familien batezbestekoak baino handiagoak direla (8 eta 5 puntu gehiago, hurrenez hurren). Gabezia materialak dituzten familien ehunekoa handia da baita ere profil honetan: % 42k ezin dio aurre egin ezusteko gastu bati, eta EAEn seme-alabak dituzten familien batezbestekoa baino 18 puntu gorago dago ehuneko hori; % 36,9k ezin du astebeteko oporraldia hartu, eta batezbestekoa baino ia 16 puntu gorago dago hori; % 10,3k ezin du etxebizitza temperatura egokian mantendu neguan, haurrak dituzten gainerako etxeen unitateen bikoitzak ia; % 9k atzerapenarekin ordaintzen ditu argindarraren, uraren edo gasaren fakturak; eta % 4,7k ezin du proteinarik kontsumitu –haragia, oilaskoa, arraina edo baliokide begetarianoak– bi egunetik behin, batezbestekoaren bikoitzak.

Profil honen barnean 38.501 familia daude, familia guztien % 17,3.

Aldagaiak

3. profila

Euskadiko
familien batez-
bestekoak

Familiaren ezaugarriak

Etxeko arduraduna emakumea	% 100	% 36,5
Arduradunaren adina	45,0	47,7
Kide kopurua	2,9	3,7
Haur kopurua	1,2	1,6

Etxebizitzaren jabetza-erregimena

Jabetzako etxebizitza	% 80,8	% 81,2
-----------------------	---------------	--------

Arduradunaren herritartasuna

Herritartasun espainiarra	% 97,0	% 92,7
EBko herrialde bateko herritartasuna	% 2,2	-
Munduko beste herrialde bateko herritartasuna	% 0,8	% 7,3

Ikasketa-maila

Lehen Hezkuntza edo beheragokoa	-	% 5,7
Bigarren Hezkuntza (1. etapa)	% 20,8	% 17,6
Bigarren Hezkuntza (2. etapa)	% 27,2	% 20,0
Goi-mailako ikasketak	% 52,0	% 56,8

Arduradunaren lan-egoera

Lanaldi osoz lanean	% 63,9	% 73,3
Lanaldi partzialean	% 17,0	% 9,7
Langabetua	% 6,6	% 4,6
Ez-aktiboa	% 12,4	% 7,6
Erretiroduna	-	% 4,8

Familia mota

Gurasobakarra	% 38,0	% 10,4
Bi heldu eta haur bat	% 62,0	% 31,7
Bi heldu eta bi haur	-	% 38,5
Bi heldu eta hiru haur edo gehiago	-	% 7,2
Hiru heldu edo gehiago haurrekin	-	% 12,1

Urbanizazio-maila

Inguru oso populatua	% 58,3	% 55,7
Inguru ertaina	% 35,4	% 36,9
Inguru gutxi populatua	% 6,4	% 7,4
Pobrezia-tasa	% 26,0	% 17,9
Pobrezia-tasa larria	% 13,0	% 7,6
Oporraldirik hartu ezin dutenen %	% 36,9	% 21,2
Proteina kopuru egokirik kontsumitzen ez dutenen %	% 4,7	% 1,6
Etxebizitza tenperatura egokian mantendu ezin dutenen %	% 10,3	% 4,5
Ustekabeko gastu bati aurre egin ezin diotenen %	% 42,0	% 24,2
Argindarra, ura, gasa, etab. atzerapenarekin ordaintzen dutenen %	% 9,0	% 4,6
Errentaren erdiko balioa kontsumo-unitateko	1.511,2 €	1.627,5 €
Familia kopurua	38.501	

4. profila **Erdi-mailako familia txikiak**



Familia txikiak

Familia ohikoena bi helduk eta haur batek osatzen dute.

Lanaldi osoz lanean

Etxeko arduradunen % 90,1ek lanaldi osoko lana du.

Ikasketa-maila

% 59,2k goi-mailako ikasketak ditu, eta % 22,1ek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

Hiritarrak

Familien % 66,2 hiri handietan bizi da.

Jabetzako etxebizitza

% 84,3k jabetzan du etxebizitza.

2000€

Urteko batez besteko errenta seme-alabak ardurapean dituzten Euskadiko familien batezbestekoa baino 2000€ handiagoa da.

4. profilaren deskribapena

Profil honen barnean, familia txikiak biltzen dira: bi heldu eta haur bateko familiak batik bat (% 89,7), eta guraso bakarreko familiak (% 10,3). Familia horietako gehienek jatorri nazionala dute (% 94,6), eta erdi- edo goi-mailako ikasketak dituzte: % 59,2k goi-mailako ikasketak ditu, eta % 22,1ek Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa osatu du, gehienez lortutako ikasketa-mailari dagokionez. Ez dute zaugarritasun-maila handirik.

Egoera sozioekonomiko egonkorra dute be-reizgarri: % 90,1 lanaldi osoz ari da lanean, eta batez besteko errenta haurrak dituzten familien batezbestekoa baino 85 euro handiagoa da hilean, hau da, 2 mila euro handiagoa urtean; horrek adierazten du pobrezia-tasa txikiagoa dela, batez besteko pobrezia-tasa baino 4 puntu beheragokoa. Talde honi eragiten dioten gabezia materialak ere batezbestekoaren azpitik badaude ere, % 22,7k ezin du astebeteko oporraldia hartu.

Bigarren ezaugarri nagusia zati handi bat hirietan bizi dela da (% 66,2), batezbestekoa baino 10 puntu gehiago. % 84,3k jabetzan du etxebizitza.

Profil honetan, 55.968 familia ditugu, hau da, Euskadin haurrak ardurapean dituzten familia guztien % 25,2.

Aldagaiak

4. profila

Euskadiko
familien batez-
bestekoak

Familiaren ezaugarriak

Etxeko arduraduna emakumea	-	% 36,5
Arduradunaren adina	43,5	47,7
Kide kopurua	2,9	3,7
Haur kopurua	1,0	1,6

Etxebizitzaren jabetza-erregimena

Jabetzako etxebizitza	% 84,3	% 81,2
-----------------------	--------	--------

Arduradunaren herritartasuna

Herritartasun espainiarra	% 94,6	% 92,7
EBko herrialde bateko herritartasuna	-	-
Munduko beste herrialde bateko herritartasuna	% 5,4	% 7,3

Ikasketa-maila

Lehen Hezkuntza edo beheragokoa	-	% 5,7
Bigarren Hezkuntza (1. etapa)	% 18,7	% 17,6
Bigarren Hezkuntza (2. etapa)	% 22,1	% 20,0
Goi-mailako ikasketak	% 59,2	% 56,8

Arduradunaren lan-egoera

Lanaldi osoz lanean	% 90,1	% 73,3
Lanaldi partzialean	% 1,4	% 9,7
Langabetua	% 4,4	% 4,6
Ez-aktiboa	% 2,8	% 7,6
Erretiroduna	% 1,3	% 4,8

Familia mota

Gurasobakarra	% 10,3	% 10,4
Bi heldu eta haur bat	% 89,7	% 31,7
Bi heldu eta bi haur	-	% 38,5
Bi heldu eta hiru haur edo gehiago	-	% 7,2
Hiru heldu edo gehiago haurrekin	-	% 12,1

Urbanizazio-maila

Inguru oso populatua	% 62,2	% 55,7
Inguru ertaina	% 23,7	% 36,9
Inguru gutxi populatua	% 10,1	% 7,4
Pobrezia-tasa	% 13,9	% 17,9
Pobrezia-tasa larria	% 6,2	% 7,6
Oporraldirik hartu ezin dutenen %	% 22,7	% 21,2
Proteina kopuru egokirik kontsumitzen ez dutenen %	% 2,6	% 1,6
Etxebizitza tenperatura egokian mantendu ezin dutenen %	% 1,5	% 4,5
Ustekabeko gastu bati aurre egin ezin diotenen %	% 14,5	% 24,2
Argindarra, ura, gasa, etab. atzerapenarekin ordaintzen dutenen %	% 2,7	% 4,6
Errentaren erdiko balioa kontsumo-unitateko	1.712 €	1.627,5 €
Familia kopurua	55.968	

5. profila Erdi-mailako familia handiak



Familia handiak

4,2 kide familiako, batez beste.

Lanaldi osoz lanean

Etxeko arduradunen % 88,2k lanaldi osoko lana du.

Ikasketa-maila

% 53,5ek goi-mailako ikasketak ditu, eta % 24,4k Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

% 20,2 pobreak dira

Bost familiatatik bat pobrezia-egoeran bizi da.

Ezin dute proteinen kopuru egokia kontsumitu

Familien % 3,4k ezin du proteinen kopuru egokia kontsumitu bi egunetik behin.

5. profilaren deskribapena

Profil honi dagokio pobrezia-tasen artean bigarren tasa altuena, eta pobrezia larriena.

Profil honetan, erdi-mailako familiak biltzen dira; beraien jabetzako etxebizitzetan bizi dira, eta hirietan (% 50,6) edo inguru nahiko populatueta (% 42,7) kokatuta daude etxebizitza horiek. Profil honetako familien % 77,7 bi helduk eta bi haurrek osatzen dute, eta % 14,2 bi helduk eta haur batek. Profil honetako familiek, Euskadin seme-alabak dituzten familien batezbestekoa baino pixka bat handiagoak direnek, egoera sozial egonkorra dute –lan-egoera ona (% 93,3), seme-alabak dituzten familietako batezbestekotik gorako errentak, eta gabezia materialen adierazle txikiagoak–, baina aurreko profilekoek baino baxuxegoa.

Familia horietako arduradunen erdiek baino gehiagok goi-mailako ikasketak dituzte, eta lau pertsonatetik batek Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa amaituta du (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, 4. maila, Batxilergoa eta antzekoak). Gehienak lanaldi osoz ari dira lanean (% 88,2), eta erkidegoan haurrak dituzten familien batezbestekoa baino 15 puntu gorago dago ehuneko hori; langabezia-tasak eta azpiokupazioa batezbestekotik behera daude.

Profil honetako familien errenta-maila Euskadin seme-alabak dituzten familien batezbestekoaren antzekoa bada ere, **pobrezia-tasa moderatuak dituzte (% 20,2), batezbestekoa baino apur bat handiagoak (% 17,9); 5 familietatik bat pobrezia-egoeran dago. Pobrezia larriaren tasa batezbestekoaren gaineratik dago baita ere (2 hamarren), % 7,8koa baita.** Hala ere, gabezia materialak dituzten ehuneko txikiagoa da, proteina kopuru egokia kontsumitu ezin duten familien kasuan izan ezik (% 3,4koa da kopuru hori profil honetan, batezbestekoaren bikoitza).

Profil honetan, 90.529 familia biltzen dira, Euskadin haurrak ardurapean dituzten familia guztien % 40,8.

Aldagaiak

5. profila

Euskadiko
familien batez-
bestekoak

Familiaren ezaugarriak

Etxeko arduraduna emakumea	-	% 36,5
Arduradunaren adina	47,2	47,7
Kide kopurua	4,2	3,7
Haur kopurua	1,9	1,6

Etxebizitzaren jabetza-erregimena

Jabetzako etxebizitza	% 87,5	% 81,2
-----------------------	--------	--------

Arduradunaren herritartasuna

Herritartasun espainiarra	% 95,3	% 92,7
EBko herrialde bateko herritartasuna	-	-
Munduko beste herrialde bateko herritartasuna	% 4,7	% 7,3

Ikasketa-maila

Lehen Hezkuntza edo beheragokoa	% 6,5	% 5,7
Bigarren Hezkuntza (1. etapa)	% 15,5	% 17,6
Bigarren Hezkuntza (2. etapa)	% 24,4	% 20,0
Goi-mailako ikasketak	% 53,5	% 56,8

Arduradunaren lan-egoera

Lanaldi osoz lanean	% 88,2	% 73,3
Lanaldi partzialean	% 5,1	% 9,7
Langabetua	% 3,3	% 4,6
Ez-aktiboa	-	% 7,6
Erretiroduna	% 1,2	% 4,8

Familia mota

Gurasobakarra	-	% 10,4
Bi heldu eta haur bat	-	% 31,7
Bi heldu eta bi haur	% 77,7	% 38,5
Bi heldu eta hiru haur edo gehiago	% 14,2	% 7,2
Hiru heldu edo gehiago haurrekin	% 8,1	% 12,1

Urbanizazio-maila

Inguru oso populatua	% 50,6	% 55,7
Inguru ertaina	% 42,7	% 36,9
Inguru gutxi populatua	% 6,7	% 7,4
Pobrezia-tasa	% 20,2	% 17,9
Pobrezia-tasa larria	% 7,8	% 7,6
Oporraldirik hartu ezin dutenen %	% 16,4	% 21,2
Proteina kopuru egokirik kontsumitzen ez dutenen %	% 3,4	% 1,6
Etxebizitza tenperatura egokian mantendu ezin dutenen %	% 3,8	% 4,5
Ustekabeko gastu bati aurre egin ezin diotenen %	% 19,4	% 24,2
Argindarra, ura, gasa, etab. atzerapenarekin ordaintzen dutenen %	% 3,9	% 4,6
Errentaren erdiko balioa kontsumo-unitateko	1.714 €	1.627,5 €
Familia kopurua	90.529	

ONDORIOAK

Ikusi dugu nolakoak diren eta nola bizi diren Euskadin haurrak hazten eta zaintzen dituzten familiak. Horien artean, argi eta garbi bereizten dira pobrezia intentsitate handiagoz pairatzen dutenen profilak. Familia horiek zaugarriago zer ezaugarrik egiten dituen aztertu dugu –lana, hezkuntza, jatorria–, bai eta faktore horiek familien profiletan nola konbinatzen diren ere: hiru belaunaldi pobrezian (1. profila) eta familia txikiak eta ama bakarrak (3. profila).

Familia pobre batean jaiotzeak, 1. eta 3. profiletan identifikatutako familietan, adibidez, izugarri baldintzatzen ditu haurren bizitzak eta aukerak. Egoera arriskutsua eta bidegabea da, eta modu larrian okertzen ditu haur horien garatzeko aukerak eta hezkuntzaren edo lanaren arloan arrakasta izateko aukerak, bai eta haien osasuna edo bizi-ibilbideak ere. Haurtzaroan pobrezia jasateak, haurren une horretako ongizateari eragiteaz gain, haur horien etorkizunari ere eragiten dio: pobrezia-egoeran bizi diren haurren % 80 pobreak izango dira helduaroan ere.

ELGAren arabera,⁵ gaur Espainian familia pobre batean jaiotzen den haurrak lau belaunaldi beharko ditu, hau da, 120 urte beharko ditu bizi den gizarteko batez besteko errentaren maila lortzeko. Egiaz, egoera hori guztiz bidegabea da Euskadin pobrezia-egoeran bizi diren haurrentzat, bai eta haien gurasoentzat ere; izan ere, beren baliabide guztiak mobilizatzen dituzte seme-alabei aukera onenak emateko, eta familian eta haurtzaroan behar adina inbertitzen ez duen herrialde batean seme-alabak hezteak dakartzan zailtasun handiei aurre egin behar izaten diete.

Baina horrek ez dauka zertan kondena bat izan. Saihestu dezakegu, **haurrengan egiten den inbertsioa handituz eta haur-pobrezia nabarmenki murrizteko politika eraginkorrak eta handizaleak abian jarritz.** Seme-alabak dituzten familiei lagundu behar diegu, haur guztiek eskubide eta aukera berberak dituztela bermatzeko.

5 OECD (2018), A Broken Social Elevator? How to Promote Social Mobility (Spain), OECD Publishing, Paris, <http://www.oecd.org/spain/social-mobility-2018-ESP-EN.pdf>

SAVE THE CHILDRENEN PROPOSAMENAK

Haurrek hein handiagoan bizi dute pobrezia eta bazterketa, familia zaugarriagoetan bizi direlako. Euskadin, haurren pobrezia-maila altuak murrizteko programa eta politika egokiak diseinatu nahi baldin baditugu, **beharrezkoa da ezagutzea zein diren familia horien ezaugarriak, nolakoak diren eta nola bizi diren, hala, politikak familia horien ezaugarri zehatzen araberak egokitzeak.**

Ondoren proposatutako neurri guztiek eragin positiboa dute seme-alabak ardurapean dituzten familientzat. Txostenean identifikatu diren familia zaugarrienen profiletako batean eragin berezia izan dezaketen neurriak adierazi dira.

Diru-sarrerarik eza estaltzera bideratutako politikez harago doazen familia-politika ugari daudela uste dugu, eta Euskadiko haurren egoerak eskatzen duen premiaz eta eraginkortasunez abiarazi behar dira politika horiek. Kasu zehatz batzuetan izan ezik –familia ugariak, adibidez–, Euskadiko familiek oso neurri txikian jasotzen dituzte familia-prestazio unibertsalen onurak, Europako beste herrialde batzuetan gizarte-politiken erdigunean badaude ere. Aurreko guztia kontuan izanik, familien benetako premiei erantzungo dieten eta haurren ongizatea bermatuko duten politikak aldarrikatzen ditugu.

Babes soziala

- **Diru-sarrerak bermatzeko Errentaren erreforman haurren ikuspegia aintzat hartuko duten aldaketak txertatzea.** Neurri hori onuragarria izango litzateke pobrezia-aren aurrean arrisku handienak dituzten familien profilentzat: 1. profila (Hiru belaunaldi pobrezian) eta 3. profila (Familia txikiak eta ama bakarrak).
 - DSBERako sarbidea erraztea une honetan prestazio hori jasotzen ez duten 32.000 familiei.
 - Ezarritako familia-osagarriaren izaera erregresiboa ezabatzea, ardurapeko adingabe guztientzat 120 euroko zenbatekoa bermatuz, jaiotza-ordena edozein dela ere. Neurri horrek mesede egingo lieke, batez beste, adingabe gehien ardurapean dituzten familien unitateen profiei, hala nola

arestian aipatutako 1. profilarik, 3. profilarik (Kualifikazio handikoak landa-inguruetan) eta 5. profilarik (Erdi-mailako familia handiak), non batez beste 2 adingabe inguru bizi baitira; bereziki, azken profila horrek Euskadin seme-alabak dituzten familia-unitateen batez bestekoa baino pobrezia-tasa eta pobrezia-tasa larri handiagoak ditu.

- Finalistak ez diren prestazio guztiak familia-unitateen diru-sarrerara konputagarritzat hartzeari buruzko proposamena ezabatzea, DSBE zenbatzeko.
- Arartekoak egindako proposamenekin bat etorritik, nahitaez eta egoera guztietan adin txikikoaren interes gorenaren irizpidea txertatzea DSBERen etetea edo ga-

- lera erabakitzeko orduan adin txikikoak ardurapean dituzten familien kasuan, hala dagokionean, DSBEren arloan ezarritako betebeharrak bete ez dituzten familien kasuan beste izaera bateko zigorrrak aplikatuz.
- Kolektibo zaugarriak bistaratzea eta sartzea DSBE kobratzea errazteko lehentasunen barruan: pertsonen trafikoaren eta sexu-esplotazioaren biktimak, adin txikiak ardurapean dituztenak.
 - DSBE eskuratzeko adinari buruz gogoeta egitea, batez ere babes-sistematik irteten diren eta arrazoi horregatik DSBE eskuratu ezin duten haurrei arreta berezia eskainiz.
 - Bizikidetzaren unitate bakoitzeko DSBE bakarra jasotzeko proposatutako mugari buruz gogoeta egitea; familia askorentzat, etxebizitza partekatzea ez da aukera bat, premia bat baizik.
- Gutxieneko errenten sistema sakontzea eta zabaltzea. Neurri hori onuragarria izango litzateke pobreziaren aurrean arrisku handienak dituzten familien profiletzat: 1. profila (Hiru belaunaldi pobrezian) eta 3 profila (Familia txikiak eta ama bakarrak).
 - Familiek ardurapean duten seme-alaba bakoitzeko Eusko Jaurlaritzak ematen duen laguntza ekonomikoa berrikustea eta, hala badagokio, handitzea.
 - Beste herrialde batzuetako politika publikoak aztertzea, lantzea eta balioestea, zerga-esparruan haurrak eta familia sustatuko dituzten neurriak (kreditu itzulgarriak, besteak beste) aplikatzeko.
 - Inoiz lanik izan ez duten baliabiderik gabeko amentzako laguntzako amatasun-prestazio bat bermatzea. Neurri hori 1. profiletzat (Hiru belaunaldi pobrezian) izango litzateke onuragarria bereziki; izan ere, arduradunen (emakumeak guztiak) % 86,1 lanik gabe daude.
 - Guraso bakarreko familiek jasotzen dituzten laguntzak eta babesak familia ugariak jasotzen dituztenekin parekatzea, eta guraso bakarreko familien ziurtagiri berezia sortzea. Familia horientzako berariazko kontsiderazio bat onartzea, alokairurako laguntzen lehentasunezko talde onuradun izendatzeko eta babestutako etxebizitzak eskuratu ahal izateko. Neurri hori bereziki lagungarria izango litzateke pobreziaren aurrean egoera ahulena duten familientzat, hots, 3. profiletzat (Familia txikiak eta ama bakarrak).

Inbertsioa

- Familiei laguntza emateko erakundeen arteko IV. Planak (2018-2022) barnean hartzen dituen politiken eta neurrien aurrekontu-hornidura egokia egitea, behar bezala garatu ahal izateko eta ebaluazioa egin ahal izateko.
- Beharrezkoa da haurren ongizatearekin lotutako datu eskuragarriak, neurri subjektiboak aintzat hartuko dituztenak, biltzen eta ematen jarraitzea, Euskal Autonomia Erkidegoko haur guztien garapenaren jarraipen hobea egin ahal izateko. Hori da familia ahulenei laguntzeko politika espezifiko eta eraginkorrak garatzeko modu bakarra (adibidez, 1. eta 3. profiei laguntzeko).

Kontziliazioa

- Bermatzea kontziliazio-politikek haurrek aintzat hartzen dituztela eta aitek seme-alabei eskaintzen dieten denbora areagotzeko neurri eraginkorrak sustatzen dituztela; halaber, zainketa-lanetan une honetan dagoen desparekotasuna gainditzea, Euskadin ama arduratzen baita zainketa-lanez nagusiki.
- Familia ahulenak kanpoan utziko ez dituen aitatasun-baimena bermatzea. Neurri hori onuragarria izango litzateke, bereziki, 1. profilerako (Hiru belaunaldi pobrezian), 2. profilerako (Kualifikazio handikoak landa-inguruetan) eta 3. profilerako (Familia txikiak eta ama bakarrak).
 - Salbuespen bat sartzea, familia ahulenetako haurrek haur-eskoletan (0-3 urte) eskolatu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzak duela gutxi luzatu duen aitatasun-baimenak irauten duen bitartean.
 - Ama lan-jardueran hasteko gaur egungo baldintzak berrikustea eta aldatzea, ama langabezian dagoen edo, lan egiten duen sektoreko lanaldi osoarekin alderatuta, lanaldi partzialeko kontratua % 50etik beherakoa duen kasuetan, familia horiek kanpoan gera ez daitezten.
 - Gaur egun aurreikusitako ordaintzeko modua birplanteatzea, pobrezia-egoeran edo pobrezia-arriskuan dauden familien zaugarritasun bereziko egoera kontuan izan dezan. Aitatasun-baimenaren % 100 amaitu ondorengo ordainketa bakarra kentzea.

Enplegua

- Enpleguko politika aktiboak diseinatzeko orduan, haurren presentzia balioestea familietan, familia horiek lehentasunezko taldeen artean txertatuz.

Hezkuntza

- **Finantzaketa:** krisiaren aurreko hezkuntzako inbertsio publikoaren maila berreskuratzea poliki-poliki, haur guztiei aukera-berdintasunean garatzeko bidea emango dien hezkuntza ekitatiboa eta kalitatezkoa lortzeko. Funtsezkoa da hori jatorri sozioekonomikoko desorekak konpentsatzeko eta Euskadiko familia zaugarrietan (1. eta 3. profilak) pobreziaaren transmisio-zikloarekin amaitzeko.
- **Une honetan eskolatuta ez dauden familia zaugarrietako 0-3 urteko haurren hezkuntzarako sarbidea bermatzea.**
 - Kuotak murriztea, tarifazio sozialaren eta ordainketa-salbuespenaren erabilera hedatuz Haurreskolak Partzuergoko zentro publiko guztietara.
 - Hezkuntza-ziklo honetan beka emateko ezarritako atalasea nahiz Haurreskolak Partzuergoan eskolatu gabeko ikasleentzako kopuruak berrikustea.
 - Ekitate faltarekin lotutako egoerak saihesteko, baremazio-irizpideak aldatzea eta bateratzea: puntuazio handiagoa ematen zaie ordaindutako lanak dituzten gurasoei bi gurasoak edo bietako bat langabezian daudenei baino; horrez gain, gurasobakarreko familiak aintzat hartu behar dira onartzeko irizpideak arautzen dituen dekretuan jasotako puntuazioan.
- **EAEko hezkuntza-lege berriak eskola-segregazioaren aurkako neurri zehatzak jaso behar ditu,** ekitatea bermatzeko Euskadiko ikasleek hezkuntza eskuratzeko orduan, haien jatorria edo baldintzak edozein izanik ere, hala, desberdintasun sozioekonomikoak aukera-berdintasunean kalterik eragin ez dezan.
 - Eskolatzeko eremu beretan, profil sozioekonomiko horietako ikasleen gutxieneko eta gehieneko ratioak ezartzea ikastetxe bakoitzeko, eta kontzentrazio horretan laguntzen duten egoerak zaintzeko eta zuzentzeko kontrol-mekanismoak definitzea.
 - Ekintza-plan positiboak garatzea konplexutasun sozial handiagoko ikastetxeetan.
 - Ekitate falta sustatzen duten sartzeko irizpideak deuseztatzea, hala nola gurasoetako bat edo

anai-arrebaren bat ikasle ohiak izatea eta ikastetxeen esku gelditzen diren beste irizpide batzuk.

- Hezkuntzaren benetako doakotasuna bermatzeko mekanismoak ezartzea, ikastetxe publikoetan zein hitzartuetan familiek jarduera osagarrietarako egin ditzaketen ekarpenetan gehienekoak ezarriz.
 - Hezkuntza-ikuskaritzak zenbait ikastetxe hitzartuetan ikasleak hautatzeko jokoerak kontrolatzeko duen ahalmena sendotzea, eta hartu beharreko neurri zuzentzaileak hartzea.
 - Ikastetxe hitzartu erlijiosoek erlijio katolikoko ikasgaiak gain, horren ordez beste bat eskaintzen dutela bermatzea.
- Ikasle etorkinentzako hezkuntza-arretarako II. Planari begira, eskola-eredu inklusibo eta kulturartekoaren esparruan (2016-2020)
 - Epe laburrean eta eskolan, beharrezkoa da berrindartzeko, laguntzeko eta orientatzeko programak sustatzea, eskola uztea saihesteko.
 - Epe luzean, ikastetxea aukeratzeko mekanismoak sendotzea, errenta baxuko familietako, guraso bakarreko familietako nahiz familia etorkinetako ikasleen aniztasun handiagoa sustatzeko emaitza hobekia lortzen dituzten ikastetxeetan. Eragin-eremuak aldatzea, eskola-garraioko programak edo kuotak txertatzea, bai eta errenta baxuko familiei zuzendutako informazio-programak ere, ikastetxea auzoaz harago aukeratzeak duen garrantziaz jabe daitezen.

Etxebizitza

- Etxebizitzetara zuzendutako laguntzak areagotzea eta hedatzea, pobrezia-egoeran dauden eta gabezia material larriak dituzten haurren berariazko premiei hobeto erantzuteko.
 - Horniduren kostuari aurre egiteko laguntzak bereziki familia ahulenentzako izango lirateke onuragarriak (1. eta 3. profilak), familia horiek baitituzte fakturak ordaintzeko eta etxebizitzaren tenperatura egokia mantentzeko zailtasun-tasa handienak.

I. ERANSKINA:

EUSKADIN HAURRAK DITUZTEN FAMILIEN GUZTIZKOAREN EZAUGARRIAK

Aldagaiak

Familiaren ezaugarriak

Etxeko arduraduna emakumea

Arduradunaren adina

Kide kopurua

Haur kopurua

Etxebizitzaren jabetza-erregimena

Jabetzako etxebizitza

Arduradunaren herritartasuna

Herritartasun espainiarra

EBko herrialde bateko herritartasuna

Munduko beste herrialde bateko herritartasuna

Ikasketa-maila

Lehen Hezkuntza edo beheragokoa

Bigarren Hezkuntza (1. etapa)

Bigarren Hezkuntza (2. etapa)

Goi-mailako ikasketak

Arduradunaren lan-egoera

Lanaldi osoz lanean

Lanaldi partzialean

Langabetua

Ez-aktiboa

Erretiroduna

Familia mota

Gurasobakarra

Bi heldu eta haur bat

Bi heldu eta bi haur

Bi heldu eta hiru haur edo gehiago

Hiru heldu edo gehiago hurrekin

Urbanizazio-maila

Inguru oso populatua

Inguru ertaina

Inguru gutxi populatua

Pobrezia-tasa

Pobrezia-tasa larria

Oporraldirik hartu ezin dutenen %

Proteina kopuru egokirik kontsumitzen ez dutenen %

Etxebizitza tenperatura egokian mantendu ezin dutenen %

Ustekabeko gastu bati aurre egin ezin diotenen %

Argindarra, ura, gasa, etab. atzerapenarekin ordaintzen dutenen %

Errentaren erdiko balioa kontsumo-unitateko

	Hiru belaunaldi pobrezian	Kualifikazio handikoak landa-inguruetan	Familia txikiak eta ama bakarrak	Erdi-mailako familia txikiak	Erdi-mailako familia handiak	Euskadiko familien batezbestekoak
	% 100	% 100	% 100	-	-	% 36,5
	71,6	45,5	45,0	43,5	47,2	47,7
	4,7	4,2	2,9	2,9	4,2	3,7
	1,7	% 1,9	1,2	1,0	1,9	1,6
	% 76,0	% 63,7	% 80,8	% 84,3	% 87,5	% 81,2
	% 70,9	% 91,3	% 97,0	% 94,6	% 95,3	% 92,7
	-	-	% 2,2	-	-	-
	% 29,1	% 8,7	% 0,8	% 5,4	% 4,7	% 7,3
	% 39,3	-	-	-	% 6,5	% 5,7
	% 25,0	% 1,8	% 20,8	% 18,7	% 15,5	% 17,6
	% 21,4	% 8,2	% 27,2	% 22,1	% 24,4	% 20,0
	% 14,3	% 89,9	% 52,0	% 59,2	% 53,5	% 56,8
	% 3,4	% 62,6	% 63,9	% 90,1	% 88,2	% 73,3
	% 6,9	% 20,1	% 17,0	% 1,4	% 5,1	% 9,7
	% 3,5	% 2,8	% 6,6	% 4,4	% 3,3	% 4,6
	% 40,6	% 14,5	% 12,4	% 2,8	-	% 7,6
	% 45,6	-	-	% 1,3	% 1,2	% 4,8
	-	-	% 38,0	% 10,3	-	% 10,4
	% 6,1	-	% 62,0	% 89,7	-	% 31,7
	% 3,5	% 73,4	-	-	% 77,7	% 38,5
	% 12,5	% 16,6	-	-	% 14,2	% 7,2
	% 77,9	% 10,0	-	-	% 8,1	% 12,1
	% 74,3	% 40,8	% 58,3	% 62,2	% 50,6	% 55,7
	% 17,7	% 45,1	% 35,4	% 23,7	% 42,7	% 36,9
	% 8,0	% 14,1	% 6,4	% 10,1	% 6,7	% 7,4
	% 20,1	% 10,1	% 26,0	% 13,9	% 20,2	% 17,9
	% 2,3	% 4,8	% 13,0	% 6,2	% 7,8	% 7,6
	% 38,5	% 9,7	% 36,9	% 22,7	% 16,4	% 21,2
	-	-	% 4,7	% 2,6	% 3,4	% 1,6
	% 17,0	% 4,0	% 10,3	% 1,5	% 3,8	% 4,5
	% 37,0	% 6,0	% 42,0	% 14,5	% 19,4	% 24,2
	% 9,8	-	% 9,0	% 2,7	% 3,9	% 4,6
	1.120 €	1.732,5 €	1.511,2 €	1.712 €	1.714 €	1.627,5 €

2. ERANSKINA: METODOLOGIA

Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako Bizi Baldintzen Inkesta da gure datu-iturri nagusia. Espainiako eta autonomia-erkidegoetako familien ezaugarri sozioekonomikoei buruzko informazioa jasotzen du, eta, horrez gain, etxeko kide bakoitzari buruzko datuak ere ematen ditu, helduei nahiz haurrei buruzkoak. Profilak lortzeko, honako urrats hauek egin ditugu:

- 1. Laginaren aukeraketa:** Seme-alabak dituzten familietara mugatu da lagina. Lagin nahikoa izateko, azkeneko bi inkesten datuak erabili dira (2017 eta 2018). Familien profilak ez dira asko aldatzen, eta, azterketa honen ondorioetarako, bi urte erabiltzeak laginaren neurria handitzeko aukera eman digu, emaitzetan distortsiorik sortu gabe. Guztira, 222.043 familia aztertu dira, seme-alabak dituzten familien batez bestekoa (2017 eta 2018).
- 2. Aldagaien aukeraketa:** familiak talde desberdinetan multzokatzen dituen algoritmoa aplikatzeko oinarritzat erabiltzen diren aldagaiak aukeratu dira: jarduerarekiko lotura, etxeko arduradunaren adina,⁶ familiaren tamaina, etxebizitzaren jabetza-erregimena, etxeko buruaren generoa, urbanizazio-maila, familia mota, etxeko arduradunaren heziketa-maila eta jatorria.
- 3. Antzekotasun-neurriaren aukeraketa:** elkarren artean ahalik eta antzekoenak eta besteekiko ahalik eta desberdinenak izango diren taldeak sortzeko, behaketen arteko kidekotasun-maila definitzeko aukera emango duen antzekotasun-neurriren bat kalku-

latu behar da. Gowerren antzekotasun-neurria erabili da, aldagai mistoekin lan egiteko aukera ematen duena.

- 4. Taldekatzeko irizpidearen aukeraketa:** datuak multzokatzeko, garrantzitsua da zehaztea zenbat taldetan zatituko den lagina (kluster kopurua). Horretarako, 2 etapako prozedura bat garatu da:

- **Eredu hierarkikoa:** klusterrak multzokatzeko hainbat metodo hierarkiko aplikatu dira, klusterren kopuru osoa hartu behar lukeen tarte bat lortzeko; kasu honetan, 2 eta 14 artekoa da tarte hori. 2 kluster aztertzeak agregazio-maila altua inplikatzeko, eta emaitzak ez lirateke garrantzitsuak izango. 14 aztertuz gero, oso familia gutxiko klusterrak osa daitezke, eta ordezkartzari eragingo lioke. Horregatik, tarteko kopuru bat erabili da.
- **Eredu ez-hierarkikoa:** behin tarteaz aztertuta, zenbait emaitza kalkulatu dira zenbakiekin tarte horren barnean, eta, azterlanaren helburuaren arabera, behaketak argien biltzen dituen aukeratu da. Aukerak aztertu ondoren, ikusi da azterketa 5 klusterrekin egitea dela egokiena. Eredu ez-hierarkikoaren kalkulua k-means algoritmoa erabiliz egin da.⁷ Hala, familia talde desberdinak lortu dira, eta Euskadin pobrezia-arriskuan dauden familien profil estatistikoa eratu ahal izan da.

6 INEren arabera, etxebizitzaren arduraduntzat joko da jabetza-titulua (jabetzako etxebizitza) edo etxebizitzaren errentamendu- edo azpierrantamendu-kontratua (alokairuko etxebizitza) duen etxeko kidea, edo etxebizitza laga zaiona. Etxebizitzaren ardura bi pertsonaren izenean baldin badago, adin handiagokoa joko da lehenengo arduraduntzat, eta bestea izango da bigarren arduraduna.

7 Algoritmo horrek ausaz definitzen ditu k zentroak, eta behaketak kluster bakoitzari esleitzen dizkio. Prozesu hori iteratu egiten da, klusterren zentroak aldatuz, talde bakoitzaren barnean bariantza minimizatzen den arte eta zentroen arteko distantzia maximizatzen den arte.





[savethechildren.es](https://www.savethechildren.es)

